

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### Euskara ikasteko bekak emateko deialdia. 2021-2022 ikasturtea

BDNS(Identif.): 566570

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/566570>).

#### **Xedea**

Diru-laguntzak ematea euskara-ikasketak finantzatzeko.

#### **Onuradunak**

Urkabustaizko Udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsona interesatu guztiak.

Pertsona bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake, (urria-otsaila, otsaila-ekaina, urria-ekaina, uda, uztaila edo iraila eta barnetegiak), baina beka bakarra jasoko du ikastaro bakoitzeko.

Ezingo dute diru-laguntzarik jaso Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluak aipatzen dituen arau-hausteeekin zigortutakoek.

#### **Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak**

Euskara ikasteko matrikularen ondoriozko gastuak. Kanpoan gelditzen dira joan-etorrien gastuak, eta baita mantenu- eta ostatu-gastuak ere barnetegiaren kasuan.

#### **Beken zuzkidura eta sortzapena**

Ikasleentzat eta langabetuentzat gehienez matrikularen kostuaren ehuneko 80 izango da bekaren zenbatekoa (ikasketa arautuak), eta langabetu edo ikasle ez direnentzat beken zenbatekoa matrikularen kostuaren ehuneko 50 izango da, betiere eskaeren eta aurrekontu-partidaren arabera.

Nolanahi ere, diru-laguntza jaso dezakeen gehienezko kopurua hirurehun eta berrogeita hamar euro (350,00 euro) da.

Zenbatekoa egindako eskaera guztien eta aurrekontu-partidaren zuzkiduraren arabera aztertuko da. Baldin eta, ezarritako gehienezko kopuruak kontuan hartuta, aurrekontu-partidan dagoena ez bada agortzen, soberakinaren banaketa egingo da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, beti ere, eskatzaileak egindako gastua izango delarik muga.

#### **Eskaerak eta ekarri beharreko agiriak**

Eskaerak administrazio-prozedurari buruzko baldintzak bete behar dituzte, eta horretarako egindako eredu baten arabera egingo dira. Eskaerarekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Udalak emandako eskaera-orri ofiziala.

b) Euskaltegiaren edo ikastaroa egin den zentroaren ziurtagiria, honako datu hauek guztiak jasotzekoa: zer ikastaro hasi eta amaitu duen, ikastaroaren ordu kopuru osoa eta ikasleak

aprobetxatu dituen ordu kopurua (gutxienez, ehuneko 80ko asistentzia), ikastaroaren hasiera-eta amaiera-datak eta ikastaroaren kostu osoa. Barnetegien kasuan, irakaskuntza-gastuak eta mantenu- eta ostatu-gastuak bereizi behar dira.

c) Matrikula ordaindu dela adierazten duen banku-ziurtagiria.

d) Xede horretarako beste edozein Administrazio, organismo edo entitate publikoren diru-laguntzarik edo laguntzarik jaso duela edo ez duela adierazten duen zinpeko aitormena. Beste diru-laguntzarik jaso badu, jasotako kopurua eta zer Administrazioek eman dion zehaztu behar da; halaber, datu horiek egiaztatzen dituen egiaztagiria ere aurkeztu behar da.

e) Langabetuak: Lanbideko langabetu txartela eguneratua.

f) Ikasleak: 2020 - 2021 ikasturteko matrikularen fotokopia, dagokion Ikastetxeak emandakoa (ikasketa ofizialen kasuan bakarrik).

#### **Aurkezpena eta epeak**

Beka-eskaerak, goian adierazitako agiri guztiekin batera, Urkabustaiz Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu behar dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, 38. artikulua finkatutako beste edozein bideren bitartez (hemendik aurrera LRJAP-PAC); eskaerak aurkezteko epea 2021ko azaroaren 3an amaituko da.

Diru-laguntzetarako eskaerak aurkezteak, oinarri hauetan jasotako guztia berariaz eta formalki onartzen dela esan nahi du.

#### **Eskaerak aztertzea eta erabakitzea**

Udalbatzako alkate-udalburuak emango ditu diru-laguntzak, aldez aurretik euskara-eremuaren eskumena duen administrazio-unitatearen txosten teknikoa izanik (euskara teknikaria) eta, beharrezkoa balitz, Kultura Batzordeak proposatuta.

Izarra, 2021eko maiatzaren 21a

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA*